
ERRENTERIYA

1931. go Oarso aldizkarian azaldutako bertsoak dira, egi-leak izenpetu gabeak, gure zaindariaren bizitzako pasadisu batzuek azaltzen direlarik. Bertso bilduma egiten dute-
nentzako ona emen aukera bat.

Argaitik iruditzen zaigu merezi duela berriro argitaratzeak.

¿Norenak ote dira?...

(XABIER)

Euskal erri bat guztiz ederra askok maitatzen duana gure probintzi Gipuzkoakoan iduritzen zait onena. Onratu eta alabatzen da Santa aundi Madalena arren bizitza nolakoa zan esan biardet aurrena.

Nere mingaňak ezdu indarririk entendimentu illuna esplikatzeke zure bizitza munduan egin dezuna orretarako eskatzen dizut zeruko argitasuna gauza guziyen zuzentzallia Espirituko laguna.

Madalena zan guraso gabe gastia gelditu zana Lazaro eta Marta utzita gaztelu batera juana gauza tristia inguruetan zabaldua zeukan fama lujua ta banidadera entregatuba zan dana.

Jaungoikoaren bildurrik gabe modu onetan bizi zan bere anima gaxua zeukan pekatariaren gisan; denbora artan Jesus munduan predikatutzen asi zan Madalenaren konbertziyua onetatik etorri zan.

Jaungoikoaren probidentziyak oparo dauka indarra Espiritua argitu ziyon bazeukan ere biarra esagaturik bere animan zedukan estadu txarra ¡nork esplikatu damuarekin egiten zuen negarra!

Bere petxua kolpatzen zuen damutasunez beterik galdeturikan non zan Maisua jez det maitatzen besterik! Jesus zegoen etxera joantzan lujo guziyak utzirik jendea pranko an egon arren ez egiten kasorik.

Auspezturikan bere oňetan onela dio esaten; —Jauna barkatu: ondo dakizu ni zer nolakoa naizen. Jesus justuak erantzuera ematen dio ain zuzen: —Emakumea, zuaz pakian garbitu zerade emen.

Jesusen oňak bustitzeraño begietako malkuak bere buruko illearekin izan ziran legortuak. Madalenaren damutasunak etziran txantxetakuak barkaturikan gelditu zaizka egintako pekatuak.

Geroztikako pausuak ere goguan artzeko dira Jesukristori jarraitu zion Kalbariyoko mendira. Gurutzearen oňetan jarri, jende guztiya begira, len pekatari aundiya zana penitentziyara jira.

Jesukristoren gorputz santua zutenian lurperatu Madalenaren pena aundiya ezin liteke dudatu. berarentzako balsamo onak asko zituen pagatu; esan zioten:—piztu ta juanda siñaleak utzi ditu.

Urte askoan penitentziyan basamortuan egon zan Jaungoikoari erregutuaz anima salbatu zezan; orain zeruangozatzen dago merezitu zuan gisan. Madalenaren bizitza zer dan orra nik euskeraz esan.

Errenteriya jakinduriyan beti dago famatua, gazte abillak, jende prestuak, ederki edukatua, alabatua izan dedilla daukagun bitartekua egin zuena penitentziya utzirikan pekatua.

X. X.